



# Hutsune handia utzi du Joxemik

Lan handia emango du Joxemi Zumalabe EUSKALDUNON EGUNKARIAko Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkari eta EKBko lehendakariorde zenak utzi duen hutsunea betetzeak. Horren erakusgarri dira Zumalabe eta berak egindako lanak gorai patuz gure erredakzioan, etenik gabe, atzo jasotako adierazpenak.

JOXANJEL ALDAI / DONOSTIA

Orri honen behealdean jasotako horieko gainera, Joxemi Zumalabe gogoan zutela adierazpen ugari jaso zuen atzo egun guztian zehar EGUNKARIAK.

Karlos Santamaria idazleak oso lagun eta oso ondo ezagutzen zena zuen Joxemi Zumalaberen aita zena, eta semearen heriotza dela eta «zumalabetarren familia handia» gogoan izan du. «Euskal kulturak zor handia du familia honekin», nabarmendu zigun Santamaria Zumalaberen heriotzaren berria jakin bezain pronto. Semea aitaren aldean gutxi ezagutzen zuela esan zigun


Karlos Santamaria, baina hain gazte hiltzea penagarri zaiola oso.

Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusiak ere Zumalaberen izera gorai patu zuen: «Iritziak iritzi, ezagutu genuenok badakigu euskaltzale eta abertzale sutsu bat galdu dugula. Bizitza osoan Euskal Herriari lotu-lotua izan dela».

Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) lehendakariorde zuen Zumalabe eta ondoko idatzia igorri zuen EGUNKARIAra haren heriotzaren berri izan ondoren: «Euskal Kulturaren Batzarreko partaide eta bertako langile guztiok bat gatz Joxemi Zumalaberen senitartekoen, lagun eta lankideen atsekabeen.

EKB sortu zela hamar urte igaro dira eta sortze une haietan Joxemi Zumalabe izan genuen, ez bairik gabe, proiektu honen bultzatzaileetarik edo eragile nagusietakoa, hasiera hasieratik.

EKBren historia laburrean izan dira gertakizun franko, arras



Joxemi Zumalabe, orain dela oso gutxi egindako argazkian.

diferenteak, batzuk hobeak beste batzuk ordea ez hain ederrak, baina momentu guztietan bere laguntza estimagarria eta esker-garria izan zaigu.(...)

Latza izango duk hik utzitako hutsunea betetzea, halere jorratu huen bidetik zintzoki jarraituko diagu, amesten huen Euskal Herri euskalduna lortu arte».

Herri Batasunako Euskara Batzorde Nazionalak Zumalaberen lana gorai patu zuen: «Epitafiorik ez, Joxemi, hire lan-ildo

miresgarriarekiko konprometuzaren jarraipena baizik. Horra hor, pertsonalki ezagutu haugun lagunok eta nolahi ere, hire adorea fruituak ondotoxo ezagutzen ditugun euskaltzale guztiok eskaintzen diagun omenaldi beroa.(...)

Mariano Ferrer kazetariak heriotzaren berriak min handia egin diola esan zigun: «Nik ez nuen gehiegi ezagutzen zoritxarrez, baina hala eta guztiz asko estimatzen nuen. Egia esan, gutxi

## Joxemi Zumalabe

Joxemi, adiskide, hire ausardiak erakutsi zizkiguk balore handiak. Galera latz honetan ilun aurpegiak, gaurko malkoak eta lehengo izerdiak... Beretzat jaso dizkik «gure» egunkariak.

Antonio Camposek ikastola guztien izenean

hitz egin nuen berarekin, baina EGUNKARIAren sorrera eztabaibatzen ari zen unean izan ziren gure elkarrizketa apurrak. Nik orduan telebistan egiten nuen lan eta gai horri buruzko saio bat egin nuen. Nahiko zabal mintzatu nintzen orduan berarekin, eta orduetik berari buruzko oroimen oso ederra daukat barrenean. Ondoren, gaixorik eginenez, ez dut parada handiegirik izan berarekin egoteko, pena ematen dit, baina egia da. Dena den, egia da baita ere asko apreziatzen nuen pertsona zela; zehazki pertsona gisa eta nola ez EGUNKARIAren egin duenagatik. Oso gogorra izan da niretzat hil dela jakitea».

AEK-k doluminak bidali zituen. LABek, berriz, Zumalabek egindako lan «isil baina eragin-korra» nabarmendu zuen.

## Lagunek gogoan

Donostiako pasealeku batean zein zen jakin gabe ezagutu nuen, isilpean, Bartzelonatik etorria zen ikasketak hartu ondoren, duela 27 urte.

Bera hitz ematen eta ni entzuten. Elkarrekin bizi izan ginen luzaro. Lagun minak egin ginen. Bera, Pello eta hiruror istorioak gogoan betirako.

Idazlea, artista fina... Baina batez ere enpresario oparoa. Eta sekulan ez bere aberastasunarako. Horregatik behar bada muntatu zuen enpresa emankorrena, laguntasunarena.

Seme-alabak maite zituen batez ere. Jakin zuenean bere biziak epe laburra zuela, atzera begiratu, balantzea egin eta pozik sentitzen zen egindakoarekin. Laburra, baina positiboa.

Guk utsiko zioagu.

Juanjo Landa

Telebistako errealizadorea

Katolikoa bai, baina katoliko *galtzaduna* nahi zuen Lizardik lortu ezin izan zuen egunkari hura. Gure EGUNKARIA hau, esan genezake, *ez da sotanaduna*, elizak, eliza guztiak, erabilera pribatero utzi dituelako. Hori Zumalaberi zor diogu, eta horrenbeste lortzeak eman zizkion lanetan dakidan apurratik, gogor sakrifikatu zen. Beretik ere kendu zuen zabaltasunagatik. Lizardi bezala gazte hustu da Joxemi Zumalabe, eta EGUNKARIA sortu izanak ez dit eskubidea ematen zena baino besteago joan zaigula pentsatzeko. Kon-suelo gutxi. Euskararik egon ez balitz ere, Joxemiren eza somatuko genukeen bere lagun izandakook, pertsonari dagozkion dohain ederrak zituelako. Adiskide bat nuen, adiskide on bat nuen.

Koldo Izagirre  
Idazlea

Bi hitzetan esateko euskararen militantea zen; euskaragan fedea zuen gazte militante nekazina. Militantea, ez politikaren zentzuan, erlijio baten antzeko sinesmenari dagokionean baizik. Hau zen bere bokazioa gaztetik. Burez berez, auzo argia zen bihozberoa; aise nekatzen ez den horietakoa; apala oso; eta gizona, buruz, zentzuz eta kuraiaz ongi hornitua.

Orain bizpahiru aste belodromoan asmo honen inguruan bildu zen munduaren aurrean hitz batzuko esan behar nirean. Joxemi dagoeneko nahikoa ahuldua zegoen, eta ez zen bertaratuko, bera; neuk hala uste, eta azken pasarte hau prestatu nuen:

«Hitz labur bat amaitzeko: lorpen honen eragile nagusi, ongi ezagutzen duzuen Joxemiel Zumalabe izan dugu, eta zuen baimenarekin, Joxemiri eskaini nahi nioke gaur arratsaldean belodromo honetan denon artean bildu dugun arnasa laster berri gurekin izan dadin».

Baina Joxemi azken orduan sendagilea alboan zuela etorri egin zen, beretzat azkenekoa izango zen jaia ikustera, eta ez nintzen hau esatera ausartu, haserretu egingo zitzaidan eta.

Hau jasotzea bururatu zait hil zagu honetan.

Martin Ugalde

EUSKALDUNON EGUNKARIAKO  
Administrazio Kontseiluko  
lehendakaria

Adiskide maitea:

Joan egin zara, eta oraindik ezin dut sinistu. Jakin ezazu adibide eta eredu izan zinela niretzat eta beste askorentzat. Gure hizkuntzaren balioa erakutsi zenidan, 'Argia' aldizkari artikuluarekin laguntzen zenidanean.

Zuri esker ulertu nuen eskuzabal-tasuna eta hitzak zer esan nahi duen. Gutxi izango dira euskararen alde zek adina lan egin dutenak, ordainez ezer jaso gabe. Lasai joan zaitez, bai baitakit zure seme-alabek, eta baita zure lagun eta adiskideok ere, zuk markaturiko bidean aurrera egingo dugula.

Josemi, euskaldunok ez daukagu zuk gure alde egin duzun guztia ordaintzerik. Eskerrik asko.

Beti izan zinen ADISKIDE handia eta ganora handiko gizona.

Karlos Argiñano  
Sukaldaria

Umetatik zekarren Joxemik mundu petral hau hobetzeko gogoia. Gazteagotan ezagutu nuenean, ardua galantak zeuzkan ordurako bizkar gainean hartuta. Pentsamendu argikoa, pragmatikoa eta langilea. Isila, gozoa, sentibera eta apala. Eraginkorra, biderkatzailea, historia aldarazten duten horietakoa. Berak aurkitu zuen puntua, berak ezarri eta indar egin palankan. Hementxe dago fruitua, EGUNKARIA. Bere ahalegin izugarriak, errealitate berriak ekarri dizkigu. Euskaldun historia hoberrant makurtuko duten lorpen lehen pentsaezinak.

Derrigor triste egon behar zaratarik gabeko lokomotara onenetako bat zebitu zaigunean. Hil eta gero nolabaiteko bizitza badagoela sinesten duzuenok, orain edukiko duzue zuen ustea frogatzeko aukera. Izan ere, gauzak horrela badira, dagoen lekuan egon, Joxemik bultzaka, tiraka eta indarrean segituko baitu, mundu petral hau hobetzeko bere ahalegin infinitu. Doluminak denei.

Hasier Etxeberria  
Idazlea

Adiorik ez, Joxemi. Modu batera edo bestera gurekin izango haiz beti. Eta, hala ere, denborak erakutsiko digu zure oroimena bizirik mantentzea ez zaigula nahikoa. Hutsune hori ez dezakeela inork eta ezerk bete. Zurekin ikasi eta ikusitakoa sinesmen bat sortu dit: zu zaren bezalakoa izan nahiko genuke askok.

Garbiñe Ubeda  
'Argia-ko' zuzendaria

Gaur goizean lantegira iristearekin batera Joxemi Zumalaberen heriotzaren berri txarra jakin dut. Horrelakoetan gertatu ohi den bezala, buruan jotaku sugerean antzera zer esan asmatu ezinik gelditu naiz. Gero, EGUNKARIAtik dei bat jaso dut, ea Joxemiri buruz hitz batzuk idatziko nituzkeen esanez. Zerbait idaztekoan, euskal kulturagintzan izan ditugun harremanetan oinarrituz, nik Joxemirengan gehien miresten nituen ezaugarriak adierazi nahi nituzke.

Alde batetik, euskararen aldeko proiektu handiak sortzeko zuen gaitasun eta ausardia. Proiektuak asmatzeko ezezik, ingurukooi ulertarazteko eta entusiasmarazteko eta aurrera beldurrik ahalagintzei, eta eraso gogorrrak jasan behar zituzten ere, ez zuen inoiz atzera jotzen, erauntsiari bizkar eman eta pasa arte aguanta egiten duen itsasgizonaren antzera. Beste aldetik, guzti hori, gozo-gozo, apal-apal, buila eta zalaparka handirik gabe, bere iritziari tanta eutsiz bai, baina besteena entzuten ere jakinez eta hankasartzeak egindakoan benetan errekonozitzen jakinez.

Niretzat benetan miresgarria zen Joxemi Zumalabe ezaugarri horienagatik. Eta bukatzeko, uste dut euskal

kulturagintzan lanean dihardugunon familiak eta euskaldun guztiok, oraindik gazte izanik hoberenak emateko zegoen gizon handi bat galdu dugula. Goian bego.

Iñaki Larrañaga  
SIADECOKo kidea

Ez dakit, benetan, zer esan. Galera izugarria da; ez dut zalantzarik esateko gogorren mugimendurik zure gizonik handiena galdu duela. Gizon handia eta maitatua oso gutxi izan diren haina. Ez dakit zerk sortzen digun min handiagorik, lagunaren galerak ala euskaltzalearenak. Ez dakit bera eta beste bereizi daitezkeen ere. Espera dut guztia aitean bere lekua betetzeko gauza izatea.

Joxe Jabier Iñigo  
EKBko idazkari teknikoa

Elkar ezagutzen ez genuenean ekin genion elkarlanari. Urrundik hurbildu gintzaizkion biok EGUNKARIAri, urrun ginen elkarrengandik bakoitzak beretik bide bakar honi heldu zionean. Baina gehienetan (gehiegitan) bezala, hitzari, elkar entzuteari, elkar ulertzen saiatzeari eta elkarrenganako errespetoari benetazko balioa ematen zion pertsona ezagutu ahal izan nuen.

Berak argi eta garbi ikusten zituen eriak, itsu jarraitu nahi zuenari nola egiten zuten pertsonen bitartean, bihotzerrearen aurkako erremedioak elkarri ematen genizkion artean, Joxemirengatik jasotako elkarrenganako errespetoa da azken urte hauetan jaso dudana ikasketarik bihotzkoenetakoa. Horregatik hitz bakar bat zor diot: eskerrik asko.

Nerea Azurmendi  
Kazetaria